



DANI BLANCO

## Diagonalekoekin topaketa

Madrilen egin eta Espainiako Estatuan zabaltzen dute euren lana ezkerreko kazetaritza konprometituan diharduten *Diagonal* proiektuko kideek. ARGIA n elkartu ginen, eta kontatu ziguten nola lantzen duten euren komunitatearekin harremana, bolondres lan handiari esker eusten diotela proiektuari, lan baldintzetan egoera gorria dutela... Aurrerantzean, Euskal Herritik kanpo ere balioetan eta lan moldeetan kide sentitzen garen hedabide txikion arteko elkarlana (*Diagonal*, *La Directa*, ARGIA...) sustatzeko pausu zehatzak adostu genituen.

# Hogei urtez kolaboratu duten Joxerra Aizpurua eta Jabier Agirreri agurra, esker onez



Itsaso Zubiria Etxebarria  
@itsasozubiria

Joxerra Aizpurua eta Jabier Agirre kolaboratzaileek "itxita" kartelak zintzilikatu dituzte osasunaren, zientziaren eta teknologien sailetan. Urteetako kolaborazio finkoak 2015a izan du amaiera data. ARGIAk astez aste emandako konfiantzagarrik eskerrak emateko modua da hau.

1990eko hamarkadan hasi ziren lehen testuak ARGIAra bidaltzen, beren izenez sinatuta behintzat, aurretik Agirre bera ibilia baitzen ZERUKO ARGIA n *Basajaun* goitizenarekin. Astekariarekin biek ala biek duten harremana aspaldi piztutakoa da. Batak bezala besteak etxean, umetan ezagutu dute (ZERUKO) ARGIA. Joxerra Aizpurua 1993an Elhuyarren lanean ari

zela hasi zen zientziaz eta teknologiaz atekarian lehen testuak sartzen, eta Jabier Agirreren pausuak, berriz, oraindik ere ZERUKO ARGIA zela egin zituen lehenak, kirol-medikuntza euskaraz zabaltzeko asmotan.

Hemendik aurrera, pausoak moteldu baino ez dira egingo, ordea. Norberak bere gaiei jarraiki idazten jarraitzeko asmoa daukate. Aizpurua dio "asteroko entregak sortzen duen presiotik askatuta", baina ARGIAko *Bata zuria erantzita* blogean jarraituko du idazten, libreago. Eta Agirrek ere "beste euskarri batzuetara egokituz" baina osasunaren inguruan idazten segitzeko asmoa dauka. ■

*"ARGIAri eskertzen diot feminismoaren aldeko apustu ausarta egin izana: jorrotzen dituzten gaietan eta edukietan nabaritzen da, baina baita ere lan egiteko prozesuetan eta kolaboratzaileen arteko harremanetan"*

**June Fernández, Pikara**  
Magazineko zuzendaria eta ARGIAko kolaboratzailea



## Lezatic mezu goxoa

Rosa Gil harpideduna ARGIA n makrobiotikaz egindako artikulua z gogoratu da, lagun bat gaixo dagoela jakin duenean. Baina ezin aurkitu astekari hura (2.289 zenbakia). Etxera bidali diogu, eta esker hitzak eta bonboi goxoak iritsi zaizkigu egoitzara.

## Proposatu Argia Sarietarako hautagaiak

Lankideok osatzen dugun epaimahaia hasia da 2016ko Argia Sarietarako hautagaiak aztertzen. Bidali zure kutunen zerrenda harpidetza@argia.eus-era. Gogoratu alor hauetako lanak saritzen ditugula: ikus-entzunezkoak, irratia, internet, prentsa, komunikazio ekintza eta ibilbide oso bat saritzen duen merezimenduzkoa.

## AGENDA

### Trantsizioak erakusketa

Lau hamarkadetako eraldaketa anitzak, ARGIAko artxiboko argazkien bidez.

- Hernanin: azaroaren 30etik abenduaren 4ra, Biteri Kultur Etxean. Bisita gidatua azaroaren 30ean...